



*zure
onena
azpimarratuz*

berria Taldearen
zerbitzu enpresa

ATZEKOZ AURRERA

Dolarea, zaindu beharreko ondarea

Dolareak egitasmoa aurkeztu dute Astigarragan: sagardo dolare zaharrak lehengoratzea eta berritzea dute xede, baita zurgintza tradizionala ikasle gazteei helaraztea eta mugaz gaindiko lankidetzaz indartzea ere. Erbetegi-Etxeberri baserrikoa erakutsi dute.



Dolareak proiektuko ikasleak eta arduradunak, Astigarragako Udalaren biltegian, Erbetegi-Etxeberri baserriko dolarea bertan dutela. JON URBE / FOKU



Enekoitz Telleria Sarriegi



Gaur



Azken berriak

Entzun BERRIA



Nire BERRIA

BIZIGIRO

jotako habeak. Zerrautsa eta herdoila. Botilatzeko makinak. Denborarenak. Eta ikasleak lanean. Mailuak eta iltzeak. Torlojuak eta zulagailuak. Arotz lapitzak eta metroak. Sagardoaren historia biltegi batean daukate bilduta Astigarragan (Gipuzkoa), eta bertan aurkeztu dute Dolareak proiektua. «Egur hauek hitz egingo balute».

Peio Martikorena fundazioak bultzatu, Astigarragako Udalak (Gipuzkoa) eta lanbide heziketako hiru ikastetxek sustatu, eta Akitania Berria-EAE-Nafarroa euroeskualdearekin batera finantzatu dute Dolareak proiektua. Hiru helburu nagusi ditu: «Sagardo dolare zaharrak lehengoratzea eta zaharberritzea, hezkuntzaren bidez zurgintza tradizionala ikasle gazteei helaraztea, eta Euskal Herriko mugaz gaindiko lankidetzaz indartzea, hezkuntza programa eleaniztun baten bidez». Halaxe azaldu dute aurkezpenean Xabier Urdangarin Astigarragako alkateak, Marie Heguy-Urain euroeskualdeko hiritartasun proiektuen kudeatzaileak, eta Iban de la Fuente Angeluko (Lapurdi) Compagnons du Tour formakuntza zentroan egurrezko egituretan irakasle denak.



Gaur



Azken berriak

Entzun BERRIA



Nire BERRIA

BIZIGIRO

den aparatua da dolarea. Oinarriko osagai hauek dira: ardoak, ardoak, ardoak, txorroak, pats oholak, giltzak eta puskak. Eta trakzio sistema, mugimendu sistema eta materialen arabera sailkatu daiteke tresna. Proiektuko lehenengo dolarea Erbetegi-Etxeberri baserrian zegoena da. CIF Donibane (Nafarroa), Easo Politeknikoa (Gipuzkoa) eta Federation Compagnonnieque (Lapurdi) ikastetxeetako ikasleak hasi dira hura zaharberritzen.

Abiadura handiko trenaren lanengatik eraitsi behar izan zuten Erbetegi-Etxeberri baserria. Bi etxebizitzatan banatuta zegoen, eta Goikoetxea eta Izeta familiak bizi ziren bertan. Dolare hori da ezagutzen den eta gorde den mota horretako dolare bakarra: animalien indarrez mugitutako *matxaka* zeukan, eta ardatz bikoitza. Lau pertsona behar ziren ardatz bakoitza lanean jartzeko. Lortutako muztio gehiena Donostiako tabernetan saltzen zuten. Barrikote bat betetzen zen joaldi bakoitzean. Sagardoa prest zegoenean, txalaparta joaz gonbidatzen omen zituzten bizilagunak sagardoa dastatzera. Hain zuzen, Goikoetxea familia funtsezkoa izan da instrumentu hori mantentzeko eta lehengoratzeko, eta haiengandik ikasi ei zuten Juan Mari Beltranek eta Artze anaiek, besteak beste.





Zurgintza tradizionala

Urdangarin alkateak azaldu duenez, Astigarragako herritarrak duela 50 urte inguru hasi ziren sagardoaren inguruko tresneria eta hitzak biltzen, eta horrela sortu zuten Sagardo Etxea: «Baina eginkizun bat genuen hasi gabe: dolare hau lehengoratzea». Urdangarinen esanetan, gauzak egiten dira, baina inportantea da nola egiten diren ere, eta, oraingo honetan, euroeskualdearekin elkarlanean aritu dira, eta Euskal Herrian galzorian dagoen ofizio bati balioa emanez: zurgintza tradizionalari.

BIZIGIRO



Erbetegi-Etxeberri baserriko dolarea. JON URBE / FOKU

De la Fuente irakasleak azaldu du beste hiru aste egingo dituztela biltegian lanean, eta urtarril-otsailean bueltatuko direla lanak amaitzera. «Ikasleak elkarlanean aritzea eta gure ondarea ezagutzea ere bada proiektu honen helburua. Hemen bukatutakoan, Txillida Lekura goaz». Egurra zerbait «bizia» dela eta «historia» kontatzen dutela azaldu du irakasleak, pasioz. «Egurra eraikuntzan gero eta gehiago erabiltzen den arren, egur zaharra oso gutxi berrerabiltzen da. Moztu, eta sutara botatzen da. Egur berria denek dakite lantzen. Egur zaharra eskuz landu behar da, eta teknika hori erakutsi nahi diegu ikasleei».



Dolarea muntatu ondoren —oraindik ez dakite non eta noiz jarriko duten ikusgai—, egurra datatuko dute —XVII. mendekoa ei da, gutxienez—, eta digitalki eskaneatuko dute —baliabide didaktiko gisa erabili ahal izateko—. «Sagardo tragoxka bat hartuko dugu hau ospatzeko, ezta?», galdetu du alkateak. Habe zaharren gainean jarri dituzte botilak. «Egur hauek hitz egingo balute».

GAIAK

Arteak eta kultura

Ohiturak eta tradizioak

Ondarea

Hezkuntza

Euskadi-Akitania Berria-Nafarroa euroeskualdea

Urdangarin, Xabier

Gipuzkoa

Euskal Herria

Kazetaritza propio eta independentearen alde

Desinformazioa nagusi den garai hauetan, euskaldunoi informazio fidagarria libre ematea da BERRIaren egitekoa. Eginkizun horri eusteko, ezinbestekoak dira egunkariaren independentzia ekonomikoa eta editoriala. 2025 amaierarako, 3.000 irakurleren babes ekonomikoa behar dugu.

Egin zure ekarpena



Gaur



Azken berriak



Entzun BERRIA

Nire BERRIA



INTERESGARRIA IZANGO ZAIZU



Gaur



Azken berriak

Entzun BERRIA



Nire BERRIA

BIZIGIRO



Bilboko Guggenheim museoko patronatuak gaur erabakiko du Urdaibaiko proiektuarekin zer egin

GARBIÑE UBEDA



EB-Mercosur itunaren babes klausulek aurrera egin dute Europako Parlamentuan

IRUNE LASA

UDALAREKIN EUSKARAZ?

Zu ere animatu zaitez

BAI, NOSKI

Nik bai

Baita nik ere

B

A red graphic with white text. At the top, it says "UDALAREKIN EUSKARAZ?". Below that, it says "Zu ere animatu zaitez". There are three speech bubbles: a yellow one saying "BAI, NOSKI", a purple one saying "Nik bai", and a blue one saying "Baita nik ere". At the bottom left, there is a white circle with a red letter "B".

Gaur



Azken berriak

Entzun BERRIA



Nire BERRIA



NABARMENDUAK



Beste paradigma bat hizkuntza eskakizunentzat

ARANTXA IRAOLA



Klara Badiola:
«Oso ideia politak zeuden garai hartan, 80ko hamarkadan, baina gero pikutara joan dira denak»

URTZI URKIZU



Internet bidez erosi, eta herriko dendan jaso

IGOR BAIGORRI PEREZ



Tei err jar

KRIST

BIZIGIRO

Mendia

Arratsaldekoa

Goizekoa

Badok

Astekaria

Kinka

Kazetaritza

Gipuzkoa

Bizkaia

Araba

Nafarroa

Iparraldea

Izena ematean privatutasun politika onartzen duzu.



Zure posta elektronikoa

Harpidetu



Gaur



Azken berriak

Entzun BERRIA



Nire BERRIA